

DESALOJO BAT, 103 OKUPAZIO!!

Gaur goizean Alde Zaharra poliziaz beterik esnatu da. Robokop itxurako munizipalak, mota guztietako ertzainak... ordu luzez gure auzoko kaleak moztuta izan dituzte, auzokideeekiko jarrera oldarkorra erakutsiz.

9ak aldera sartu dira Kutxi 103ko etxe okupatuan, etxean ez zegoen jenderik. Kantoitik ikusi ahal izan dugu indarrez nola sartu diren, 5 urte luzez biziberritu dugun etxean. Indarrez egin behar izan dute, 5 furgona, patruilak, porra eta pistolaz armatutako gizonen laguntzaz. Indarrez, argudioekin ezin izan dutelako. Katedral fundazioak dituen proiektuak inon ez baitira eztabaidatzen, inork ez baititu ezagutzen eta norbaitek desadostasuna adierazten duenean, ezagutzen dituzten tresna bakarrak erabiltzen dituzte. Edota epaitegiak desjabetzeko edota beraien polizia, jendea kanporatu eta egurtzeko.

Hori da gertatu dena gure auzokidea den Elenarekin, desjabetza arriskuan egonik, azalpen eske joan denean poliziarengana, egurtu, identifikatu eta furgonetara eramanez. Ostean, anbulantzia deitu eta ospitalera bidali dute. Gure besarkada goxoena bidali nahi diogu Elenari, bere tinkotasunagaitik, gurekiko izan duen elkartasunagatik eta bere etxea defendatzeko erakusten duen duintasunagatik. Berak beti dioen moduan... arrazoa gurekin dagoelako!!

Desalojo honek, 103an bizitakoari agurra eta datorren guztiari ongietorria ematen dio. Ez gara geldirik egoteko jaioak!! Beraz, okupatzen jarraituko dugu. Orain San Franzisko 3ko etxetik, beste zenbait gazterekin batera eta gogoz beterik. Bertatik ere auzo eredu desberdin bat aldarrikatuz, auzokideon Alde Zahar bizi bizi bat. Etxebizitza eskubidea geure eginez, bizi eredu desberdin bat errealitate bihurtuz, kontsumo eredu zalantzan jarriz, harreman eredu berriak eraikiz... Geure buruetatik hasiz, dagoena iraultzeko prest!!

Borroka honek etenik ez duelako ezagutzen... Zuen poliziak, epaitegiek.... ez dituzte sekula gure ametsak desalojatuko!!!

103ko asanblada

UN DESALOJO 103 OKUPACIONES!!

Esta mañana Alde Zaharra se ha despertado tomada por la policía. Municipales al estilo robocop, toda clase de ertzainas... han mantenido las calles cortadas durante toda la mañana con una actitud violenta y desafiante con todo el vecindario.

Hacia las 9 de la mañana han entrado en la casa okupada de Kutxi 103. La casa se encontraba vacía. Desde el cantón hemos asistido al circo que tenían bien diseñado las distintas policías de nuestra ciudad, no han escatimado en recursos. Deberían buscar más cerca si se trata de delincuentes o ladrones. Han entrado en la casa que durante 5 años hemos mantenido con vida, de la única manera que saben, por la fuerza. 5 furgonetas, patrullas, hombres armados con porra en mano... A la fuerza, porque de otra manera no han podido, ya que los proyectos de la Fundación Santa María ni se aprueban ni se debaten en ningún sitio y cuando alguien muestra su disconformidad para con estos proyectos su respuesta es muy clara. O utilizan los juzgados y las amenazas de expropiación o llaman a su policía para desalojar y golpear al vecindario.

Eso mismo es lo que ha ocurrido esta mañana en Alde Zaharra con Elena, nuestra vecina. Estando amenazada de expropiación por la Fundación, ha acudido a pedir explicaciones a la policía ya que habían utilizado su propiedad para entrar en la casa okupada. La actitud de la policía ha sido contundente, la han insultado, golpeado, identificado y llevado a la furgoneta, para posteriormente avisar a una ambulancia y llevarla al hospital. Desde aquí, queremos mandarles un fuerte abrazo a Elena. Por la solidaridad que ha demostrado siempre hacia nosotras y por la dignidad que demuestra a la hora de defender su casa frente a las imposiciones. Como ella dice... ¡La razón está con nosotras!

Para nosotras este desalojo supone un adiós a todo lo que hemos vivido y compartido en la 103, pero también un "aupa!" a todo lo que está por llegar. ¡No nacimos para estar quietecitas, que le vamos a hacer! Así que, pretendemos seguir okupando, ahora desde San Francisco nº3, con muchas más jóvenes y llenas de ganas. Desde esta casa vamos a seguir reivindicando otro modelo de barrio al que nos quieren imponer, un Alde Zaharra vivo, de sus vecinas y para sus vecinas. Seguiremos haciendo nuestro el derecho a la vivienda, que repetimos es un derecho y no un negocio para unos pocos en esta ciudad. Continuaremos haciendo realidad un modelo de vida diferente al que se nos vende, poniendo en duda el actual modelo de consumo, de relacionarnos entre nosotras, de ocio... Porque solo empezando desde nosotras mismas le podemos dar la vuelta a esta situación.

Y sobre todo porque esta lucha no conoce los puntos finales. ¡Ni vuestros jueces, ni vuestras policías van a desalojar jamás nuestros sueños!!!

Asamblea de Kutxi 103